

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

**ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA****370/2022 Foru Agindua, uztailaren 26koa. Francisco Javier Olmeda Almendros Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Arkitektura Zerbitzuaren buru lanpostura atxikitzea (kodea: 1028.001)**

Maiatzaren 16ko 246/2022 Foru Aginduaren bidez, deia egin zen Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Arkitektura Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1028.001) betetzeko.

Eskaerak egiteko epea amaituta eta deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak, espedientean jasota dagoen txosten arrazoituan, Francisco Javier Olmeda Almendros proposatu du Arkitektura Zerbitzuaren buru lanposturako (kodea: 1028.001).

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorrean eskumena duen sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Francisco Javier Olmeda Almendros Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Arkitektura Zerbitzuaren buru lanpostura atxikitzea (kodea: 1028.001).

Bigarrena. Foru agindu honek 2022ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru Agindu honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorritik: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 26a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR